



Herritarrek administrazioarekin darabilten hizkuntza euskara izatea lortu nahi dute, besteak beste, errenta aitortpena euskara eginez. UEMA

Errenta aitortpenetan ere euskarak dagokion lekua izateko

UEMAk, udalek eta hainbat erakunde publikok 'Errenta aitortpena euskaraz' kanpaina jarri dute martxan, herritarrei hizkuntzaren hautua egiteko eskatuz

Eneritz Maiz Etxarri

Errenta aitortpenari ere eragin dio koronabirusaren gaitzak, baina errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina martxan da, aurten ere, UEMAk, udalek eta hainbat erakunde publikok elkarlanean jarrita.

Aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratuta daude, baina dagoeneko bidaltzen hasia da Gipuzkoako Foru Aldundia autolikidazio proposamenak. UEMAk, udalek eta hainbat erakunde publikok jarritako kanpainak «herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak

euskaraz izan daitezen» bultzatu nahi du. «Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik», azpimarratzen dute UEMatik.

«Administrazioa euskalduntzeko duen eraginagatik, euskararen normalizaziorako bidean udalerrri euskaldunak egiten ari diren beste urrats bat da errenta aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea», azaldu dute. Eskualdeko udal askok babestutako kanpaina da martxan jarri dena. «Urratsa sendoa

izan dadin, ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea ere beharrezkoa da, eta hautu horretan eragin nahi da», diote kanpainaren egileek. Eta helburuen artean gaineratzen dute: «Euskarak

Errenta aitortpena egiterakoan herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea dute

dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan ere».

Tolosaldeko herritarren artean ere bada zer hobetua. Iaz, errenta aitortpena 24.624 pertso-

nek egin bazuten, 7.721 pertsonen baino ez zuten egin euskaraz. Eskualde buru den Tolosa adibide hartuta, 10.322 pertsonetatik, 2.742k egin zuten euskaraz. Aldiz, Oresan, 66 pertsonetatik 51k aukeratu zuten euskaraz. Amasa-Villabonan 2.840tik, 725ek egin zuten euskararen aldeko hautua, eta Anoetan, 1080k egin bazuten aitortpena, 367k egin zuten euskaraz.

Errenta aitortpena egiteko hainbat bide daude aukeran, eta horietan euskararen aldeko hautua egitea da kanpaina honekin UEMAk, udalek eta hainbat erakunde lortu nahi dutena. «Da-

tuetan islatu dadin udalerrri euskaldunetan herritarrek euskaraz bizi direla. Eta, administrazioa euskalduntzeko bidean eragiten jarraitzeko».

HIZKUNTZAREN HAUTUA

2009. urtetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailak eta Gipuzkoako 85 udalek euskaraz lan egiten dute. Gizartearen esku dago euskara bere egin eta erabiltzea, eta baita administrazioekin harremanak zein hizkuntzatan izan nahi dituen erabakitzea ere. Errenta aitortpena izan daiteke pausoetako bat.

Aitortpena errenta mekanizatu bulegoan eginez gero, zergadunak bere euskarazko hautua adieraziko dio langile publikoari. Aldiz, Interneteko Zergabidea plataformaren bidez eginez gero, errenta aitortpena betetzean, hizkuntza aukera egiten da. Hau da, datu pertsonalak eta administrazioarekin harreman izateko hizkuntzaren, euskaraz hautatu beharko litzateke. Baina bi bide horiek utzi, eta kudeatzaile agentzia baten bidez eginez gero, bertako kudeatzaileari, zergadunak bere euskarazko hautua adierazi beharko dio.

Esan, behin hautua eginez gero, Foru Ogasunak autolikidazio proposamena herritarren hizkuntza hautuaren arabera bidaltzen duela.

7.721

EUSKARAZ EGINDAKOAK

Tolosaldean 24.624 pertsonen egin zuten iaz errenta aitortpena, eta horietatik 7.721 izan ziren euskaraz egin zutenak. Euskaraz egindako kopurua zortzi herritan baino ez da gaztelaniaz egindakoena baino handiagoa. Amezketan, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Lizartza, Orendain eta Oresako herritarren artean euskaraz egiteko hautua egin dutenak gehiago dira.

2019ko errenta aitortzeko kanpaina
Internet bidez, telefonoz, banketxean edo aholkularitzan. Aurten ere egin **ERRENTA AITORTPENa euskaraz!**

ERRENTA AITORTPENa EUSKARAZ

Ogasunarekin euskaraz

kintza txikiak, ragin handiak

